


4. ATALA

OROBIOC EGUIN DEGU ALDAIGUN GUSTIJA

Jone eta Aritzek Iurretako historian zehar bidaiari jarraitzen zuten hurrengo geldialdia non eta noiz egingo desiratzeko. Durangaldean bizi izan ziren neolitikoko gizakiak ezagutu zituzten, baina gerora, Iurretari buruzko datuak historiako lanbroetan galduak ziren.

Halako batean Iurretako Oromiño auzoan gelditu ziren.



- Esan didatenez musulmanen eta kristauen arteko bataila bat izan zen hemen. – Jone gertaera hari buruz kontatu ziotena gogoratu nahian hasi zen.
 - Musulmanak eta kristauak? – galdetu zuen Aritzek – *Eta zergatik egiten zuten borroka elkarren kontra?*
 - Erligio eta kultura ezberdinekoa zen bando bakoitza eta besteek baino botere gehiago nahi zuten denek.
 - Zeintzuk ziren onak eta zeintzuk txarrak?
 - Galdera ona Aritz! Nafarroa aldetik etorri ziren musulmanak eta kristauak aurre egin zieten. Azkenean kristauak irabazi omen zuten eta diotenez han esan zuten: “Orobijoc eguin degu aldaigun gustija”
 - Hara! “Orobijoc”... hortik al dator Oromiño izena?
 - Hori dio leienda honek bai.
 - Zer da leienda bat Jone? - Galdetu zuen Aritzek.
 - Begira, hori ikasi dezakegu gaur!
- Jone bere neba txikiari historia zer zen azaltzen hasi zen eta zer ziren leiendak eta mitoak.

ARIKETA:

- Gai al zara mitoa leienda eta historia definitzeko?

Mitoa**Leienda****Historia**

.....
.....
.....
.....